

Paulo Agirrebaltzategi

Frantziskotarra. Donostia

“Aulkiaren ibilaldia” deitu zioten komunikabideek Josu Uribetxebarriaren eta beste preso gaixo larrien askatasuna eskatzeko Donostian barna abuztuko egunetako batean egindako protesta-ekitaldiari. Egun hartan bertan eta helburu berberarekin hastekoa zen Donostia-Arrasate ibilaldia, mendiz mendi eta herriz herri joango zena; debekatu egin zuten, ordea. Ezin etsi eta eskuak tolestatuta geratu, eta irudimenari haizea emanez –irudimenik gabeko erresistentziak gutxi balio du–, “aulkiaren ibilaldia” bururatu zitzaien Donostiako ospitalearen aurrean gose-greban eta protestan egunak zeramatzaten Herrira taldekoei.

Aulkiarenak azalpentxo behar du. Donostiako ospitale aurrean hamalau aulki egon ziren korroan; Etxerat-en zerrendako euskal preso gaixo larrien izen bana zeramaten. Horietako bat, Josurena, eskuetan hartu, UNOren Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren kopia batekin, eta Donostian barrena kalez kale erakustea, hiriari itzulua eman eta ospitalera berriro: horixe izan zen ekintza.

Baina aulkiarenak irakurketa gehigarria merezi du. Hainbat gauza bihur daiteke askatasunaren sinbolo, mezu egokia daramanean. Eseri eta lasai egoteko da normalean aulkia; pazientziaren eta erresistentziaren sinbolo bihurtua zen gau eta egun luzetan Donostiako ospitalearen aurrean. Baina oinak ibiltzeko dituztenei ibiltzea debekatzean, asaldatu egin zen aulkia eta ibilian hasi bera, Giza Eskubideen aldarrikapena besapean.

Adierazgarria izan zen komunikabideek zabaldu zuten irudia, ertzain argazkilariarena. Bertatik bertara, eta behin eta berriro saiatu zen, ibilaldiaren protagonistei, aulkiari eta orri-sortari, hurbileko argazkiak ateratzen, ondo identifikatuta gera zitezen edo; “70 urteko frantziskotarra” ez baitzen izan aulki ibiltariaren bizkarzaina besterik. Hala ere, komunikabideek behin eta berriro bizkarzainaren seinak azpimarratu izanak ere badu bere atzeko irakurketa: 70 urtekoa izateak badu oraindik errespetagarritasunik nonbait gure gizartean, baita San Frantzisko Asiskoak ere sinesgarritasunik.

Lerro hauek idaztean jakin dut Arrasateraino iritsia dela gure aulki ibiltaria: jendeak egiterik izan ez zuen ibilaldia burutu du berak, Josuren aska-

tasuna aldarrikatu eta ospatuz oraingoan. Agian berriro itzuli beharko du Donostiako edo beste nonbaiteko ospitaleren baten aurrera, egonarrian egotera nahiz prozesioan ibiltzera. Oraindik beste askotxo geratzen baitira larriki gaixorik espetxeetan, gizabidez, eskubidez eta zuzenbidez dagokien askatasunaren zain.